# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

## 3148

*EBAZPENA, 2014ko ekainaren 20koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzen berri ematen duena.*

2014ko martxoaren 12an argitaratu zen EHAAn 2014ko martxoaren 5eko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Agindu honen 13.1 artikuluak dioenez, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak hartutako Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrek ez du esan nahi onuradun gertatzen direnei jakinarazpen indibidualizaturik egingo ez zaienik.

Horiek horrela izanda, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko martxoaren 5eko Aginduaren babesean emandako diru-laguntza guztiak eta baita horien guztien onuradunak argitara ematea. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 20a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSE ANGEL MARIA MUÑOZ OTAEGI.

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ANTZOKIETAN EGOITZA-PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK

2014. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako dirulaguntza eman zaienen zerrenda.

| Eskatzailea | Dirulaguntza jaso dezakeen ekintza | Diru-laguntza |
|---|---|---|
| Astarloa kulturgintza | Residencia Ganso & Cía / Karrika | 16.343 |
| Zigoitiako udala | Residencia Panta Rhei | 20.464 |
| Zornotzako kultura eta euskara zerbitzurako herri erakundea | Residencia Markeliñe | 23.193 |